



Herri txikiak aurrera begira: Belaunaldien arteko harremana eta memoriaren transmisioa landa eremuan



Ira. 16 2022

Kod. G29-22

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2022

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 16 2022

Kokalekua

Zeraingo eliza

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

2020an eta 2021ean, Zerainlab elkarteak sustatu eta Kutxa Fundazioak lagunduta, "Herri txikiak aurrera begira: auzolaneko kultura eta balioetatik etorkizunera" eta "Herri txikiak aurrera begira: Nola eragin du pandemiak landa eremuko bizitza eta balio komunitarioetan?" ikastaroak egin ziren Zerainen. Uda Ikastaro hauek, bertan landutako gaiek eta topaketa hauetan sortu edota indartutako sareek piztutako interesa ikusita, egoki jotzen da 2022an ere ildo berean beste ikastaro bat eskaintzea, hain justu ere aurreko bi edizioetan plazaratu den kezka nagusi bat ardatz hartuta: belaunaldien arteko harremana eta transmisioa landa eremuko herri txikietan.

Ikastaro hauek "Auzolantzen" proiektuaren baitan kokatzen dira. Zerainlab elkarteak sustatu, eta Deustuko eta Mondragon Unibertsitateko ikertzaileak beste hainbat eragilerekin elkarlanean garatzen ari diren proiektu honetan, auzolaneko balio eta kultura komunitarioak gure herri txikietan oraindik duten presentzia eta aurrera begira izan dezaketen balioa ikertzen eta lantzen ari dira. Dimentsio inmaterialak landa eremuko auzo eta herri txikien etorkizuneko garapenerako eta bertako komunitateen bizi-baldintzetarako duen garrantzia agerian geratzen ari da proiektu honetan sortzen eta biltzen ari den ezagutzan.

2022rako proposatzen den ikastaro honetan, herri txikietako komunitate eta familietan egun belaunaldien arteko harremana nolakoa den jorratu nahi da, hainbat elementu ezberdini begiratuz: balioen transmisioa, memoria kolektiboa partekatzea, tokiko ohituren transmisioa, tokiko ezagutzaren transmisioa, etab. Bizimoduak, familiak eta herri txikietako biztanleen joan-etorriak eta dibertsitatea aldatzen ari diren garaiotan, zinez garrantzitsua da komunitate bateko kideek beren baitako identitatearen eta kulturaren garapena nola egiten duten behatzea eta horren gainean hausnartzea. Hizpide horiek ardatz hartuta, ikastaro honetan gogoeta teorikoak, kasu eta esperientzia konkrituak eta belaunaldi arteko eztabaida uztartuko dira.

Helburuak

Landa eremuko herri txikietan belaunaldien arteko harremanari buruz hausnartzea.

Herri txikietako komunitateen etorkizunerako balio, identitate, memoria eta kulturaren transmisioak duen paperaz eztabaidatzea.

Belaunaldien arteko harremana indartzeko herri txikietan egon daitezkeen aukera eta esperientziak aztertzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Programa

2022-09-16

09:00 - 09:15	Ongi etorriko kafea eta erregistroa / Café de bienvenida y registro
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Ion Muñoa Errasti Deustuko Unibertsitatea - Ikastaroaren zuzendaria
09:30 - 10:15	“¿Cómo se transmiten hoy los valores y la identidad en nuestra sociedad? Una mirada a la transformación social de nuestro País” Juan Luis Arriaga Ortega Gaia Investigación - Zuzendaria
10:15 - 11:00	“Identitatearen transmisioaren giltzak” Eneko Bidegain Aire Mondragon Unibertsitatea - irakaslea, ikertzailea eta idazlea
11:00 - 11:45	“Memoriaren transmisioa eta identitatea. Proposamen bat: Vitagrama.” Gaizka Aranguren Urroz Labrit Multimedia - Sortzailea eta Zuzendaria
11:45 - 12:15	Atsedena
12:15 - 13:30	“Belaunaldien arteko topaketarako gune eta esperientzia inspiratzaileak” Legazpi Belaunaldi Artekoa Maria Ruiz Amurrio ISEA (Mondragon Korporazioko Berrikuntza Zentroa) - Ikerketa eta Garapeneko (I+G) Koordinatzailea Mespretxaturiko ondarea Aritz Ibañez Ranero Mendialdea Radio - arduraduna Jentilen etorrera: herri baten arima Jon Aizpurua Barandiaran Jentilbaratza kultur elkarte - arduraduna
13:30 - 14:00	Mahai ingurua: “Aurrera begirakoei buruzko solasaldi irekia” Hizlarien eta partaideen arteko solasaldia Irakaslea zehazteke zehazteke - zehazteke
14:00 - 14:05	Itxiera Ion Muñoa Errasti Deustuko Unibertsitatea - ikastaroaren zuzendaria

Zuzendaritza



Ion Muñoa Errasti

Deustuko Unibertsitatea

Ion Muñoa Errasti Deustuko Unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko irakasle-ikertzailea da. Giza Zientzietan eta Komunikazioan lizentziatua eta Gizarte Zientzietan doktorea da. Deustuko Unibertsitateko Komunikazio graduko irakaslea eta Komunikazio ikertaldeko kidea da. Intereseko gai nagusiak Komunikazio Publikoa, Iritzi Publikoa eta Komunikazioaren eraldaketa dira.

Irakasleak



Jon Aizpurua Barandiaran



Gaizka Aranguren Urroz



Juan Luis Arriaga Ortega

Gaia Investigacion y consultoria



Eneko Bidegain Aire





Maria Ruiz Amurrio

ISEA S.COOP.



Irakaslea zehazteke

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2022-09-16 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2022-09-16 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Zeraingo eliza

Zerain Núcleo Gunea, 15, 20214 Zerain, Gipuzkoa

Gipuzkoa